



BILBAO AURRERA

Bilboko gizarte-kohesiorako, ekonomia eta enplegua berraktibatzeke eta kulturarako neurrien plana COVID-19ak sortutako egoeraren aurrean

2020 maiatzaren 8a

Bilboko alkatea

EAJ-PNV

PSE-EE (PSOE)
EUSKAL
SOZIALISTAK

EUSKAL HERRIA
BILDU - EH BILDU

ELKARREKIN BILBAO-
PODEMOS/EZKER
ANITZA-IU/
EQUO BERDEAK

PP
ALDERDI
POPULARRA

AURKIBIDEA

I.- TESTUINGURUA. EGUNGO EGOERA ETA ETORKIZUNEAN EGON DAITEZKEENAK	3
PLANAREN IKUSPEGI OROKORRA ETA ZEHARKAKO PRINTZPIOAK	8
III.- PROPOSATUTAKO NEURRIAK	12
III.1- GIZARTE-KOHESIOAREN arloko neurriak	12
III.2- EKONOMIAREN ETA ENPLEGUAREN arloko neurriak	14
III.3- KULTURAREN arloko neurriak	20
IV.- PLANAREN GOBERNANTZA-EREDUA	23
ERANSKINA: PROPOSATUTAKO NEURRIETARAKO KALKULATU DEN AURREKONTUA	24

I.- TESTUINGURUA. EGUNGO EGOERA ETA ETORKIZUNEAN EGON DAITEZKEENAK

COVID-19ak inoiz ikusi gabeko osasun krisia eragin du mundu osoan zehar eta mundu mailako erronka garrantzitsua da; izan ere, osasun-arloan eragina izateaz gain, ekonomian eta gizartean ere izugarritzko eragina du. Munduko hiri eta eskualde guztiok gaude ziurgabetasunez betetako egoera batean, jarduera ekonomikoagatik, horrek enpleguan izan dezakeen eraginagatik eta ekar ditzakeen guztiz bestelako arazo sozialengatik.

Krisi honek asko eragingo die pertsoneri eta familiei. Beste behin, pertsonarik zaurgarrienak kaltetuko ditu gehien eta kalteberatasun-egoera berriak agertuko dira. Pertsonen momentua da, pertsona guztiena, eta haiek dira gure lehentasuna. Bilbon gizarte-kohesioa lehentasunezko helburua izan da beti baina egoera honetan, are gehiago. Hori dela eta, beharriak guztiz estalita ez dituzten eta gure laguntza izango ez balute, duintasuna kolokan izango luketen pertsonen ondoan egon behar dugu.

Testuinguru honetan askotariko kalteberatasun-egoerak ager daitezke eta horien artean, proposatu diren eta agiri honetan bildu diren neurrien esparruan, gizartearen, lanaren eta kulturaren arloetan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunik ezetik sortutako kalteberatasun-egoerak artatuko dira beren-beregi.

Gainera, 2019. urtearen erdialdeaz geroztik, munduko ekonomiak bazituen neke-sintomak, eta COVID-19aren eraginak ziurgabetasun handiagoa ekarri du, jada nabari daitekeen eragin zuzenaz gain.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Zuzendaritzaren kalkuluen arabera, 2020an euskal ekonomiak % 3,6ko uzkurdua izatea espero da eta 2021erako, % 2,6koa. Horrek enpleguan izango duen eraginari dagokionez, aurreikuspen horien arabera 2020. urterako enplegua 1,7 puntu jaitsiko da batez bestean, hau da, 17.000 lanpostu desagertuko dira eta ondorioz, langabezia-tasa % 11,4koa izango da; 2021ean, berriz, enplegua 1,6 puntu igoko litzateke eta beraz, 15.000 lanpostu sortuko lirateke. Horrek 2021. urte amaierarako berriro ere % 10etik beherako langabezia-tasa (% 9,6) izatera eramango gintuzke. Itxialdia hilabetekoa izango zela eta 45 eta 60 egun bitartean mailaz maila normaltasunera bueltatzen joango ginela kontuan hartuta egin ziren kalkulu horiek eta beraz, litekeena da kalkulu horiek berrikusi ondoren datuak are okerragoak izatea.



EUSKAL EKONOMIARAKO HIRU HILABETEKO AURREIKUSPENAK (2020ko martxo)

Urte arteko aldakuntza-tasak

	2020				2020	2021
	I	II	III	IV		
BPGd	0,1	-6,2	-4,5	-3,9	-3,6	2,6
Gastua azken kontsumoan	0,7	-4,6	-3,2	-2,8	-2,5	2,4
Etxebizitzetako kontsumo-gastua	-0,3	-8,1	-4,9	-4,3	-4,4	3,5
Administrazio publikoen kontsumo-gastua	4,4	8,4	3,1	2,6	4,6	-1,2
Kapitalaren eraketa osoa	0,5	-7,6	-4,8	-4,5	-4,1	3,2
Barne eskariaren ekarpena	0,7	-5,5	-3,8	-3,3	-3,0	2,7
Kanpoko saldoaren ekarpena	-0,6	-0,8	-0,7	-0,6	-0,6	-0,1
Lehen sektorea	7,8	-9,6	-6,7	-9,9	-4,6	5,9
Industria eta energia	-1,5	-6,8	-4,0	-3,5	-3,9	3,0
Eraikuntza	0,6	-4,6	-3,2	-2,9	-2,5	1,7
Zerbitzuak	0,4	-5,8	-4,2	-3,6	-3,3	2,2
Balio erantsi gordina	0,1	-6,0	-4,1	-3,6	-3,4	2,4
Produktuen gaineko zergak	0,4	-7,8	-7,5	-6,6	-5,4	3,8
BPGd-aren deflatorea	0,7	0,5	0,7	0,9	0,7	1,3
Enplegua	-0,3	-4,0	-2,2	-0,4	-1,7	1,6
Langabezia-tasa	9,4	14,0	12,0	10,2	11,4	9,6

Eusko Jaurlaritzak eraginaren 3 dimentsio aurreikusten ditu:

- Sektore publikoaren likidotasuna, zerga-arloan enpresen likidotasunari mesede egiteko hartu diren neurriengatik.
- Diru-sarrerak, ekonomiaren bilakaera eta erantzuteko duen elastikotasuna kontuan hartuta.

- Gastu publikoaren arloko erabakiak.

Beste azterlan batzuek eragina are negatiboagoa izango dela aurreikusten dute (Frantziako eta Alemaniako hiru hilabeteko PBGD-aren gaineko azken datuak negatiboak dira eta kontuan hartu beharra dago euskal esportazioetarako merkatu nagusiak direla). Zentzu horretan, Nazioarteko Diru Funtsak espainiar estatutako dituen aurreikuspenak ezkorragoak dira eta 2020an PBGD-a %8 jaitsiko dela erakusten dute, krisi honen eragin ekonomikoa eurogunean bereziki esanguratsua izango delako ideiarekin bat eginez (- % 7,5 2020an), mundu mailan murrizketa hori % 3koa izango delarik.

PIB real, variación porcentual anual	2019	2020	2021
Producto mundial	2,9	-3,0	5,8
Economías avanzadas	1,7	-6,1	4,5
Estados Unidos	2,3	-5,9	4,7
Zona del euro	1,2	-7,5	4,7
Alemania	0,6	-7,0	5,2
Francia	1,3	-7,2	4,5
Italia	0,3	-9,1	4,8
España	2,0	-8,0	4,3
Japón	0,7	-5,2	3,0
Reino Unido	1,4	-6,5	4,0
Canadá	1,6	-6,2	4,2
Otras economías avanzadas	1,7	-4,6	4,5
Economías de mercados emergentes y en desarrollo	3,7	-1,0	6,6
Economías emergentes y en desarrollo de Asia	5,5	1,0	8,5
China	6,1	1,2	9,2
India	4,2	1,9	7,4
ASEAN-5	4,8	-0,6	7,8
Economías emergentes y en desarrollo de Europa	2,1	-5,2	4,2
Rusia	1,3	-5,5	3,5
América Latina y el Caribe	0,1	-5,2	3,4
Brasil	1,1	-5,3	2,9
México	-0,1	-6,6	3,0
Oriente Medio y Asia Central	1,2	-2,8	4,0
Arabia Saudita	0,3	-2,3	2,9
África subsahariana	3,1	-1,6	4,1
Nigeria	2,2	-3,4	2,4
Sudáfrica	0,2	-5,8	4,0
Economías en desarrollo de bajo ingreso	5,1	0,4	5,6

Fuente: Perspectivas de la economía mundial, abril de 2020.

FONDO MONETARIO INTERNACIONAL

IMF.org

Espainiako Bankuak apirilaren 20an argitaratutako txostenean 3 egoera desberdin planteatzen dira eta horietan, 2020an estatuko PBGD-a % 6,8 eta % 12,4 bitartean jaitea eta 2021ean % 5,5 eta % 8,5 bitartean berreskuratzea aurreikusten da. Egoera horietan, 2020an langabeziak gora egingo luke eta % 18,3 eta % 21,7ra artekoa izatera helduko litzateke. 2021an, aldiz, egoera hobetuko litzateke eta urte amaierarako, langabezia-tasa

% 17,5 eta % 19,9 artekoa izan litzateke. Aurreko guztiaz gain, defizita eta administrazio publikoen zorra asko igoko lirateke.

Escenarios económicos de referencia de la economía española tras la crisis del COVID-19
Fuente: Banco de España

Tasas interanuales	2020				2021			
	Proy. dic-19	Esc. 1	Esc. 2	Esc. 3	Proy. dic-19	Esc. 1	Esc. 2	Esc. 3
PIB	1,7	-6,8	-9,5	-12,4	1,6	5,5	6,1	8,5
Consumo privado	1,5	-6,8	-9,3	-11,9	1,4	3,9	3,4	5,2
Inversión: equipo	2,2	-33,3	-44,2	-57,4	2,3	4,9	20,5	42,6
Inversión: vivienda	2,3	-6,9	-10,1	-13,0	2,2	3,8	4,3	6,3
Exportaciones de bienes y servicios	2,6	-13,2	-16,4	-19,0	3,1	19,0	18,7	22,2
Importaciones de bienes y servicios	2,1	-14,5	-18,4	-22,4	3,2	12,7	12,1	15,5
Tasa de desempleo (% media anual) (a)	13,7	18,3	20,6	21,7	13,2	17,5	19,1	19,9
Capacidad/necesidad fin. AAPP (% del PIB)	-2,2	-7,2	-8,9	-11,0	-1,9	-5,2	-6,5	-7,4
Deuda AAPP (% del PIB anual)	96,0	109,9	115,3	122,3	95,2	109,4	114,5	120,3

Egia esan, analistek ez dakite berreskurapena V, U edo L formakoa izango den, hau da, ez dakite berreskurapena azkarra edo motela izango den, edota COVID-19aren eraginak egiturazko izaera handiagoa hartuko duen.


Argi dagoenez, epe labur eta ertainera nazioarteko mugikortasuna mugatuta egongo da eta horrek eragina izango du mundu mailan. Hala ere, sektore ekonomiko bakoitzaren berreskuratze-erritmoa oso desberdina izango dela aurreikusten da.



Arestian aipatu dugun txostenaren arabera, ostalaritzaren, jatetxeen eta aisiaren sektore ekonomikoa izango da kaltetuena, egoeraren ondorioz. Sektore horren atzetik egongo lirateke, antzeko kalteekin, enpresaren, txikizkako zein handizkako merkataritzaren eta merkatuko beste zerbitzu batzuen sektoreak.

Contribuciones por sector al (de)crecimiento del PIB en España en 2020 (puntos porcentuales)

Fuente: Banco de España



Badago ziurra den zerbait: egoerak epe laburrera enpleguan (erregistratutako langabezia eta okupazioa) eta jarduera ekonomikoan izango duen eragina oso gogorra izaten ari da eta hala izaten jarraituko du. Horrek pobrezian erortzeko eta gizartetik baztertuta geratzeko arrisku-egoera larriak ekarriko ditu berehala eta neurriak hartu beharko dira egoera horiek ekiditeko edo gutxienez egoera horien eragina ahal beste murrizteko. Ildo beretik, martxo amaieran erregistratutako langabeziak nabarmen gora egin duela ikusi dugu baina ABEEE aplikatu zaion pertsona kopurua aintzat hartuz gero, baliteke hori “izozmendiaren tontorra” baino ez izatea.

PLANAREN IKUSPEGI OROKORRA ETA ZEHARKAKO PRINTZIOAK

Arestian aipatutako testuinguruaren baitan, Administrazioetatik neurriak eta ekintzak martxan jartzeko pausoak eman ditugu pixkanaka-pixkanaka, lehenik eta behin COVID-19ak ekarritako osasun krisiaren eragina murrizteko eta bigarrenik jarduera ekonomikoa eta enplegua berraktibatzeke eta gizarte-kohesioa bermatzeko neurriak garatzeko. Eta jakina, **Bilboko Udaletik ere ahal dugun guztia egin behar dugu, lehenik eta behin COVID-19ak Bilboko pertsonengan eta enpresetan izandako eragina arintzeko eta gero, berreskuratzen laguntzeko.**

Helburu horrekin planteatu da **gizarte-kohesiorako, ekonomia eta enplegua berraktibatzeke eta kulturarako neurrien plana. Presazko eta larrialdietarako neurri multzoa** da, beste instituzio batzuk diseinatzen eta hartzen ari diren neurriekin eta nola ez, osasun-neurriekin eta neurri soziosanitarioekin **koordinatuta** dagoena eta haien **osagarri** dena.

Presazko neurri multzo hau ezohikoa eta aldi baterakoa litzateke, eta 2020. urtean zehar aplikatuko litzateke. Hiru eremuetan aurreikusitako ekintzetan eta proiektuetan islatutako zenbatekoak areagotu ahalko dira urtean zehar, proposatutako ekintzak egikaritzen diren heinean eta horretarako aurrekontua badago.

Gure neurriak gainerako instituzioen neurriekin koordinatu behar ditugu baina kontuan izan behar dugu, baita ere, gure bizilagunengandik hurbilen gaudenak garela. Hurbiltasunak eta bizkortasunak azkarrago heltzen eta beharizanik zehatzenei, errealei eta berehalakoenei erantzuten lagundu behar digute.

Ezinbestekoa da xehetasun osoko analisia egitea eta neurriak benetan gehien behar dituztenengana heltzea lortzea. Toki-erakunde gisa, gu gara lehen eskutik herritarrik kaltetuenak nortzuk diren jakin dezakegunak eta horrek ematen digun ezagutza mailari esker, zuzen erantzun dezakegu eta eraginkorragoak izan gaitezke ekintzak bultzatzeko orduan. Hala, errazago egingo zaigu erabakietan bereizketa egitea eta pertsonengana eraginkortasun handiagoz heltzea. **Zuzenean heldu behar gara behar gaituztenengana.**

Hori dela-eta, sektore ekonomikoak aintzat hartuta, **gure hiriko ekonomian eta enpleguan garrantzi handia duten 3 sektoreri arreta berezia eskaini behar zaiela uste dugu, egoerak horiei asko eragingo diela kalkulatu baita.**

Lehenengo sektorea **tokiko merkataritza txikiak, ostalaritzak eta jatetxeek** osatzen dute. Salbuespen gutxi batzuekin, itxialdiaren lehenengo tartean guztiz itxi behar izan duen sektorea da. 6.800 merkataritza-jarduera inguru eta ostalaritzako eta sukaldaritzako 3.000 jardueratik gora ditu sektoreak, guztira BPGd-aren % 16 inguru da eta krisi honen aurretik 25.000 pertsonarentzako enplegua sortu zuen. Orain, arrisku larrian dago sektorea, batez ere saltoki txikien kasuan, jada errentagarritasun justuarekin ari baitziren lanean eta orain, baliteke horietako batzuek berriro ireki ezin izatea.

Sektore horietatik bigarrena **turismo-sektorea** da, mundu mailan sektore horretan nabarituko omen baita eragin negatiborik handiena. Bilboren kasuan, sektore hori BPGd-aren % 8,5 da, gutxi gorabehera.

Hirugarren sektorea **kultur eta sormen industriena** litzateke. Oso sektore garrantzitsua da gizarte-garapenerako baina hauxe da sektorearen errealitatea: autonomoek, mikroenpresek eta irabaz asmorik gabeko elkarteek osatzen dute eta orain, gure osasun agintaritzek koronabirusa berriro ez agertzeko hartu beharreko neurriek ekar ditzaketen

murrizketek asko kalte dezakete sektore hau. Sektore hau ere esanguratsua da gure hirian, 2.600 jardueratik gora baititu eta gure BPGd-aren % 2,5 dela kalkulatu baita.

2020an zehar hartu beharreko ezohiko neurriak zehazteko orduan, berebizikoa iruditzen zaigu honako printzipio orokor hauek oinarri gisa hartzea:

1.- Malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna

Plan hau malgua den plan gisa ulertu behar dugu nahitaez; izan ere, oraindik **ez ditugu hainbat aldagairen inguruko erantzunak.**

Osasun agintaritzek kontaktu soziala berebiziko ezaugarritzat duten zenbait jarduera ekonomiko mugatuko dituzte eta mugapen horren eragina bereziki esanguratsua izango da. Mugatze-mailak eta neurri horiek arintzen joateko erritmoak markatuko dute proposatutako neurri batzuk ezartzeko aukera, eta baita horiek ezartzeko momentua ere.

Arrazoi hori dela bide, **plan honek barne hartzen du barne koordinaziorako eta eragile esanguratsuek parte hartzeko eredu bat.** Horri esker, neurri desberdinak zehazteko orduan, erabakiak adostu eta egokitu ahalko dira, administrazio publikoek hartutako neurriak ere kontuan hartuta.

2 - Eraginaren printzipioa

Erabilitako baliabideek ahalik eta eragin handiena izatea izan behar da helburua eta baliabide horiek mugatuak izan beharko dira nahitaez.

3.- Inbertsioaren eta gastuaren arteko oreka

Momentu honetan lehentasuna pertsonen beharrezanean erantzutea da, osasunaren, gizaratearen, enpleguaren, ekonomiaren eta abarren arloan. Horretarako, ezinbestekoa da zuzeneko gastuan esfortzu handiagoa egitea, presazko laguntza emateko.

Gauzak horrela, inbertitzeko indarra ez galtzea ere berebizikoa da, batez ere Bilborako estrategikoak diren inbertsioen kasuan. Inbertsio publikoa da enplegua suspertzen duen eta hari zuzenean eragiten dion faktore garrantzitsuetako bat eta aldi berean, Bilbok lehiakortasuna eta bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetzen du.

Horregatik, aurreikusitako inbertsio estrategikoak egingo dira baina zerga bidezko diru-sarreraren aurreikuspenari jaramon eginez, gastua eutsi eta lehenestearen eta inbertsioen inguruko hausnarketa egitea komeni da.

4.- Digitalizazioa (barreak eta kanpokoa)

COVID-19aren ondorioek proban eman dute gure gaitasun teknologiko eta digitala, bai Bilboko Udalean (barne dimentsioa) eta bai hiriko enpresa-sarean eta bilbotarregan (kanpo dimentsioa). Oro har, zehazki jokatu, emandako erantzuna positiboa izan dela esan dezakegula uste dugu, egoera batzuetan arrakala digitalak zailtasunak ekarri baditu ere.

Argi geratu dena zera da: instituzio, erakunde, enpresa eta pertsona digitalizatuenak hobeto kudeatzen ari dira egoera hau eta ziurrenik hobeto prestatuta egongo dira aurrean dugunari aurre egiteko.

Horrenbestez, **hiriaren digitalizazio estrategia** eratzen joan behar gara. Hemendik hasita, udal antolamendutik. Administrazio digitalagoa izan behar dugu gure barne funtzionamenduan eta herritarrei eta enpresei zerbitzuak eskaintzeko orduan.

Era berean, gure “hiri adimena” sakondu behar dugu, hiriko jarduera ekonomikoen, bertako sektoreen eta horiek dakarten enpleguaren bilakaera ikusteko funtsezkoak diren adierazleak une oro eta azkar monitorizatu eta aztertu ahal izateko. Orain, inoiz baino gehiago, datuetan oinarritutako erabakiak hartzea bultzatu behar dugu. Bestalde, Bilboko enpresa-sare osoari lagundu behar diogu, negozioen digitalizazioan aurrera egin dezan.

Azkenik, ezin dugu ahaztu digitalizazioaren aldeko apustu honetan herritarrak eta hiriko elkarte- eta gizarte- sarea barne hartu beharko direla.

5.- Lankidetzaren eta parte-hartzearen (publiko-publikoa eta publiko-pribatua)

Beste instituzio eta hiri batzuekin **lankidetzaren aritzea eta sarean lan egitea** ezinbestekoa izango da proposamenak eta neurriak partekatze eta alderatzeko.

Eusko Jaurlaritzarekiko eta Bizkaiko Foru Aldundiarekiko harremanaren eta lankidetzaren kasuan, jada irekita ditugun lankidetzaren bideak indartu beharko ditugu. Beste hiri batzuei dagokienez, **beste euskal hiriburuekin lanerako talde informal eta operatiboa sortzea** sustatzea planteatzen dugu, **eta beste bat sortzea Estatuko hiri nagusiekin**. Hori guztia, balizko sinergia guztiak aprobetxatzeko eta hala, neurriak hainbat arinen martxan jarri ahal izateko eta horiek ahalik eta eragin handiena izateko.

Neurri horiek garatzeko, ezinbestekoa izango da udal talde desberdinekin eta Bilboko sektore sozial, ekonomiko eta kulturaletako ordezkariekin etengabeko harremana izatea.

Administrazio desberdinen arteko **lankidetzaren eta koordinazioaren oinarritutako lanetik** abiatuz, garrantzitsua da **Bilboko Udalean dugun gaitasun osoa areagotzea eta/edo indartzea**.

Helburu garrantzitsuenetako bat izango da krisi honen eragin ekonomiko eta soziala ahalik eta gehien murriztea lortzea. Horrenbestez, zeharkako lana egin beharko dugu, **beste Administrazio batzuek martxan jarritako laguntzak eta pizgarriak gure herritarrei eta gure enpresei helarazteko, transmisio-uhala bagina bezala. Hala, Bilboko pertsonen eta enpresek laguntza horiek benetan lortzeko beharrezkoak diren laguntza-zerbitzuak garatu beharko ditugu. Eta gainera, gure baliabideek ahalbidetzen diguten neurrian, pizgarri orokor horiek indartu eta/edo osatu beharko ditugu.**

Printzipio orokor horietatik abiatuz, plan hau 3 sektore-esparruren inguruan egituratuta dago:

- GIZARTE-KOHESIOA.
- EKONOMIA ETA ENPLEGUA.
- KULTURA.

Proposatutako neurrien inguruko xehetasunetan sartu aurretik, esan beharra dago **epe ertain eta luzera beste ildo, gidalerro eta planteamendu estrategiko batzuk lantzen joan beharko garela, Larrialdi Plan honen osagarri gisa**. Izan ere, ezinbestekoak izango dira egoera hau garapen iraunkorraren ikuspegitik gainditzeko, kontzeptu horren dimentsio osoa (ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapena) zein epe luzerako iraunkortasuna kontuan hartuta. Garatu beharreko ildo horietako batzuk lirateke inbertsioak, ekintzailtza eta talentua erakartzeko lan gehiago egitea; gure Smart City estrategia indartzea; Bilbao-Bizkaia turismo-estrategia eguneratzea; eta Merkataritzako Plan Estrategikoa garatzea.

III.- PROPOSATUTAKO NEURRIAK

III.1- GIZARTE-KOHESIOAREN arloko neurriak

Neurri hauen xedea koronabirusak sortutako egoerak gehien kaltetuko dituen eta itxialdi osterako laguntza berezia beharko duten **pertsona guztien gizarte-babes gisa funtzionatzea** da.

4 bloketan egituratuta daude proposatutako neurriak:

- Diru-sarrerarik eza.
- Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak.
- Gizartetik baztertuta dauden pertsonak.
- Familia eta haurrak.

1.- Diru-sarrerarik eza arintzeko neurriak

1.1.- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) indartzea Eusko Jaurlaritzak emandako zuzkidura gehigarria egongo da, koronabirusak ekarritako egoeraren ondorioz diru-sarrerarik ez duten edo diru-sarrera nahikorik ez duten pertsona guztiei laguntzeko. Pertsona horiek prestazio ekonomiko bat jasoko dute oinarritzko beharrianak asetzeko, hau da, elikatzeko eta etxebizitzak mantentzeko. Aipatutako zuzkidura gehigarri horrekin, 2020ko ekitaldirako GLL gehienezko kopurua eta irizpide orokorrak aldatuko dira, Eusko Jaurlaritzaren aginduz zehaztu diren gehienezko kopuruak errespetatzeko.

1.2.- Aldian behingoak ez diren udal diru-laguntza berezien ezohiko programa sortzea - 625.000 € % 100eko udal jatorria duen finantzaketa-programa bat sortuko da koronabirusak ekarritako egoeraren ondorioz diru-sarrerarik ez duten edo diru-sarrerak gutxitu dituzten pertsonentzat, GLL eskatzeko baldintzak betetzen ez dituztenerako. GLLen kasuaren antzera, pertsona horiek oinarritzko beharrianak asetzeko prestazio ekonomikoa jasoko dute, hots, elikatzeko eta etxebizitzak mantentzeko.

1.3.- Arrakala digitala murriztea - 100.000 €. Doako Wifi Bilbao sarea zabaltzea estaldura gutxiago duten auzoetara.

2.- Beren-beregi kalteberatasun-egoeran dauden adineko pertsonen zuzendutako neurriak

2.1.- “Urrats bat gehiago” - Adineko pertsonen laguntzeko udal programaren zuzkidura ekonomikoa handitzea - 150.000 € Denbora luzean bakarrik bizi diren, familiaren laguntzarik ez duten eta oro har laguntasunik ez duten adineko pertsonen beharrian berriei erantzuteko kopuru gehigarria emango da, osasun krisiak iraun bitartean egindako deien bidez hautematen direnean. Laguntza-zerbitzu hau eskainiko zaie haien autonomia sustatzeko, inguruarekin duten harremanari mesede eginez eta bakardadea ekidinez.

2.2.- Etxebizitza Komunitarioen Funtza - 560.000 € Bestelako ostalua behar duten adineko pertsona guztiei erantzuteko funtza sortuko da. Etxebizitza komunitario batean edo Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak balioetsitako gela-baliabideren batean sartzeko eskatuko da,

adineko pertsonaren isolamendu-egoera prebenitzeko eta hala, pertsona hori mendekotasun-egoera batera heltzea ekiditeko.

3.- Gizartetik baztertuta dauden pertsonen zuzendutako neurriak

3.1.- Etxerik gabeko pertsonen ostatu emateko funts berezia - 1.000.000 € (erakunde artekoa). 375.000 € (Bilboko Udala). Funts bat sortuko da beste instituzio batzuekiko lankidetzaren oinarri hartuta, etxerik ez duten pertsonen behin-behineko ostatura eskaintzeko, mantenua barne. Horrela, administrazio eskudunek koronabirusak ekarritako itxialdiaren harira diagnostikatu diren profil desberdinetara egokitutako gizarte-baliabide espezifikoak sortu ahalko dituzte. Gainera, funts horren bidez, hiriko ostaturik (aterpetxeei, hostalei eta pentsioei) lagunduko diegu, koronabirusaren ondorioz gutxienez urtebetean, 2020an, erreserba kopuruan egongo den jaitsierari aurre egiteko.

4.- Familiari, helduei eta haurrei zuzendutako neurriak

4.1.- Arreta bermatzea - 360.000 € Beharrezkoa bada, gaur egun babesgabetasun-egoerak eta familia barruko gatazkak hautemateko eta horien aurrean arreta emateko dauden programak indartu eta egokitzea, esku-hartze psikosoziala edo gizarte- eta hezkuntza-arlokoa behar denerako. Izan ere, itxialdiak egoera eta gatazka horiek larriagotu ditu.


4.2.- Genero-indarkeriaren biktimen izandako emakume guztiei eta haien menpeko pertsonen baliabide ekonomikoetarako sarbidea bermatzea - 50.000 € Beharrezkoa bada, gaur egun babesgabetasun-egoerak eta familia barruko gatazkak hautemateko eta horien aurrean arreta emateko dauden programak indartu eta beharrezkoa bada, genero-indarkeriaren biktimen izandako emakumeen kasura egokitzea, instituzioekin lankidetzan, esku-hartze psikosoziala edo gizarte- eta hezkuntza-arlokoa behar denerako. Izan ere, itxialdiak egoera eta gatazka horiek larriagotu ditu.

4.3.- Harrera-etxebizitzetan dauden emakume guztiei diru-laguntzaren ordainketa aurreratzea eta horien eskuratzeko izapideak eta prozedurak erraztea. (Kosturik gabe).

III.2- EKONOMIAREN ETA ENPLEGUAREN arloko neurriak

Jarraian ekonomia eta enplegua berraktibatzeko proposatu diren neurri batzuk bildu dira. Neurri horiek ahalik eta azkarren ezartzea da helburua ("jarduerara bueltatzen garen 1. egunetik"). Hala ere, logikoa den bezala, osasun agintaritzek emandako jarraibideetara egokitu beharko da neurri horien aplikazioa, hots, itxialdia altxatzen joateko erritmoak eta "distantzia sozial normalera" buelta kontuan hartuta aplikatu beharko dira.

Proposatutako neurriak Administrazioak enpresen garapenari eta lehiakortasunari mesede egiteko bultza ditzakeen neurrien eskema kontzeptual honetan oinarritzen dira:



Ekonomia eta Ogasun Arloa

Oro har, **jada existitzen diren** eta gure Zerga Ordenantzetan ageri diren **zerga-pizgarriak indartzea** proposatu da, jarduera ekonomikoa sustatzeko eta 2020ko ekitaldian zehar baldintza abantailatsuagoak eskaintzeko, bestelako laguntza-neurriez gain.

Honako hauek izango lirateke proposatutako neurri zehatzak:

2.1.1- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga. Urte amaierara arte egungo zerga-tasa behin-behinean murriztea. Hala, orokorrean eraikuntzako espedienteetarako % 3,5ekoa eta establezimenduak jarduera ekonomikoetarako prestatzeko obretarako % 2koa izatera pasatuko litzateke.

2.1.2.- Obra-lizentziaren tasa. Urte amaierara arte tasa hau kalkulatzeko tarifak behin-behinean murriztea. % 19,5eko tasa aplikatuko da obra mota orori aplika dakikeen tarifa orokorraren gainean zein obra bereziei aplika dakiekeen lehentasunezko tarifaren gainean, establezimenduak jarduera ekonomikoetarako prestatzeko egin beharreko obren kasuan bereziki.

2.1.3.- Jarduerengatik eta establezimenduak, instalatu, ireki eta ezartzeagatik emandako zerbitzuaren tasa. Urte amaierara arte tasa hau kalkulatzeko tarifak behin-behinean murriztea. % 29,5eko tasa aplikatu ahalko da.

2.1.4.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboen edo aprobetxamendu berezien tasa, mahaiak, mahaitxo oinbakarrak, aulkiak, karpak, loreontziak, eguzkitakoak edo antzeko instalazioak erabiltzen direnerako. Urteko tasaren gainean % 75eko hobaria aplikatuko da.

2.1.5.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboen edo aprobetxamendu berezien tasa, erakusleihoak, bitrinak, apaintzeko ateladak, eguzki oihalak eta markesinak jartzen direnerako. Urteko tasaren gainean % 75eko hobaria aplikatuko da.

2.1.6.- Autotaxi lizentzia erabiltzearen tasa. 2020ko ekitaldian zehar ez da ezer ordaindu beharko.

2.1.7.- Zabor-tasa. % 95eko hobaria alarma-egoeran zehar itxita egon behar izan diren eta ondorioz, alarma-egoerak kalte egin dien enpresentzat.

2.1.8.- Enpresen zerga-zorrak interesik gabe atzeratzea, beti ere 2020ko ekitaldian zehar ordaintzen badira.

Proposatutako neurri multzoak 3.000.000 euroko eragin ekonomikoa izango luke, diru-sarrera gutxien egongo den kasurako.

Neurri espezifiko horiez gain, gogoratu beharra dago Bilbon “Ordainketa Nahierara” daukagula. Aukera horri esker, aldian behin ordaintzen diren eta kolektiboki jakinarazten diren zergak (OHZ, ibilgailuen gaineko zerga, EJGZ, estolderiagatik tasa, bide publikoa behin-behinean okupatzeagatik tasa, TAO txartela eta Autotaxi) epe erosoetan eta malgutasun osoz ordain daitezke. Zergadunak berak aukeratuko du nola ordaindu zergaldian zehar, berandutze-interesik ordaindu beharrik gabe.

Enpresei zuzenduta dauden gainerako toki-zergak, ez daude jarduera ekonomikoari zuzenean lotuta edo unean unean ordaintzen dira (behin bakarrik ordaintzen direnak, irekitze-tasa esaterako) eta ez dute inongo loturarik egungo testuinguruarekin. Horrenbestez, zerga horien ordainketa salbuesteak edo hobariak eskaintzeak oso eragin txikia izango luke. Ekonomia-jardueren gaineko zergaren kasuan, ekoizpen-jarduerari lotuta dago zuzenean eta ezin dugu ahaztu oso enpresa gutxik ordaintzen dutela zerga udal kuotaren arabera, kaltetutako sektoreei laguntzeko neurri orok Foru Arauaren babesa izan behar duela eta Lurralde Historiko guztietarako neurriekin koordinatu behar dela, konparaziozko bidegabekeria ekiditeko.

Ekonomi Sustapen, Merkataritza eta Enpleguko Arloa

Ekonomi sustapenaren ikuspegitik, hiriko saltokiei, autonomoei, mikroETEEi eta ekintzaileei krisi hau gainditzeko, hirian **zuzeneko kontsumoa bultzatzeko**, hiria hurbileko inguru gisa promozionatzeko eta **enplegua berreskuratzen** laguntzeko **zerbitzu espezifikoak eta diru-laguntzak** eskaintzea da funtsezkoena, aldi berean **Bilbo inoiz baino aktiboago eta dinamikoago egoteko** laguntza emanez.

SALTOKIEN, MIKROETE-EN, AUTONOMOEN ETA EKINTZAILEEN LEHIAKORTASUNA BERRESKURATZEKO ETA HOBETZEKO EZOHIKO EKINTZAK

2.2.1.- COVID-19ari buruzko aholkularitza-zerbitzu osoa - 80.000 €. COVID-19ari buruzko aholkularitza osoa emateko leihatila bakarra. Bilbao Ekintzatik informazio-, aholkularitza- eta laguntza-zerbitzu hau jarri da martxan, hiriko ekintzaileek, saltokiek, autonomoek, mikroETEEK eta enpresek instituzio-esparru desberdinetatik abian jarritako laguntza guztietara benetan sarbidea izan dezaten. Zerbitzua martxan egon den lehenengo 5 asteetan 700 kontsultatik gora jaso eta artatu dira.

Zerbitzu hau behar beste denboran egongo da martxan. Era berean, informaziorako eduki digitalak garatuko dira, laguntzei eta diru-laguntzei buruzko informazio orokorra eta egoera hau nola kudeatu jakiteko informazioa zabaltzeko. Hala, enpresa gehiagorengana helduko da, modu eraginkorragoan.

Gainera, osasun-arloko agintaritza eskudunek egindako gidaliburuak eta protokoloak zabaltzeko ekintza espezifikoa egingo dira, Bilboko enpresak berriro lanera buelta daitezten, bezeroen eta langileen segurtasuna bermatuz.

2.2.2.- Sektore ekonomiko kaltetuenetako saltokiei, mikroETEEi eta autonomoei zuzendutako zuzeneko diru-laguntzak, agintaritza eskudunek ezarritako osasun protokoloengatik beharrezkoak diren inbertsioak egiteko - 500.000 €. Honelako kontzeptuak barne hartuko lituzke, besteak beste: eremuak isolatzea, banatzea, urruntzea...

2.2.3.- Merkataritza-lokalen alokairua ordaintzeko akordioak lortzeko bitartekaritza-zerbitzua - 30.000 €. Jardunbide egokiak identifikatu eta zabaltzea, orientazioa eta gomendioak eskaintzea, eta baita bi aldeei (errentatzaileari eta errentariari) onez-oneko akordioak lortzen laguntzeko bitartekaritza-zerbitzu espezifikoa eskaintzea ere.

2.2.4.- COVID-19ak sortutako egoeraren aurrean erronkei aurre egiteko berrikuntza ireki eta kolaboratiborako prozesuak sustatzea, aldi berean ekintzailatza babestuz - 50.000 €. Enpresentzako eta gainerako eragileentzako erronkak sortzeko bidea egitea (Udalarentzat berarentzat, hiriko elkarte-sarearentzat...), COVID-19ak ekarritako egoerari arreta berezia eskainiz, startup-ek aukera berritzaileak proposatu eta garatu ditzaten, enpresentzat, Administrazioarentzat zein ekintzaileentzat onuragarria izango den eredu kolaboratibo baten baitan. Bilboko enpresarik handienen konpromiso soziala indartzeari lotutako prozesuak ere dinamizatuko dira.

2.2.5.- COVID-19ak sortutako egoeraren aurrean saltokiei, mikroETEEi eta autonomoei lanera bueltatzen laguntzeko mentoring zerbitzu aurreratua - 100.000 €. Helburua "goi errendimenduko behin-behineko taldeak" sortzea da, lan kolaboratiboa oinarri sendotzat dutenak eta aipatutako enpresek beren estrategia berraztertze eta merkataritza- eta kudeaketa-tresna berriak barneratzeko balioko dutenak. Horretarako, boluntario korporatiboen zein norbanakoen konpromiso eskuzabala izango dugu, krisi honek ekarri digun gauza onetako bat aprobetxatuz: solidaritatearen eta guztion ongizateari mesede egitearen balioak indartzea.

2.2.6.- Saltokien, mikroETEEen eta autonomoen gaitze digitalerako, berrikuntzarako eta lehiakortasuna hobetzeko zerbitzua - 100.000 € Prestakuntza-programa berezia, aurrez aurreko zein on-line prestakuntza-piluletan oinarrituta dagoena, enpresei aukera eta tresna berriak identifikatzen laguntzeko, banakako aholkularitza-zerbitzua eskaintzeaz gain. Bilboko saltokien eta zerbitzu-enpresen digitalizazioa hobetzean zentratuko da bereziki.

2.2.7.- Auzofactory-etan eta oro har ekintzailatzarako udal espazioetan kuotak murriztea - 60.000 € (diru-sarrera gutxiago). Urteko alokairuaren % 50eko deskontua.

2.2.8.- Turismo-arloko produktuak eta zerbitzuak saltzeko kanal berriak - 20.000 €. Salmenta-kanal digital berriak zein aurrez aurrekoak eskaintzea turismo-arloko produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten tokiko enpresei, Udal Turismo Bulegoan aurrez aurreko salmenta egiteko aukera eskainiz eta salmenta-kanal digital bat sortuz, adibidez.

2.2.9.- MICE sektorearentzako laguntza berezia (azokak, kongresuak eta konbentzioak) - 140.000 €. 2020. urteko kuota guztiak barkatzea Bilbao Convention Bureau-ko kide izateagatik eta tokiko eragileek antolatutako familia-topaketak (famtrips) eta ekitaldiak egiteko zuzeneko laguntzak, jarduera erakartzeko.

BILBON ZUZENEAN KONTSUMITZEKO PIZGARRIAK. BILBO BONUAK

Bonuen programa hau hirian kontsumitzeko pizgarri-tresna gisa proposatzen da; aldi berean, programa honen xedea herritarrek eta tokiko enpresek egoera honek gehien eragingo dien sektore batzuekiko duten konpromisoa indartzea da.

Ekintza zehatzak izango lirateke eta tokiko kontsumoa sustatzera zuzendutako bestelako komunikazio-ekintza batzuekin koordinatuko lirateke. Ahal den neurrian, ekintza horiek bestelako administrazio eta erakunde batzuekin elkarlanean garatuko dira eta denboran behar bezala planifikatuko dira, horien eragina ahalik eta handiena izan dadin. Horrekin batera, kontuan hartu behar da beharrezkoa dela deskonfinamenduaren erritmoak betetzea eta osasun-agintaritzek ezartzen dituzten gomendioak jarraitzea; hortaz, neurri hauek errealitatearen arabera zehaztu eta hedatu beharko dira.

3 bonu mota proposatzen dira (Kulturako Bilbo Bonuaz gain, sektore kulturalaren eremuko neurrien atalean jasota dagoena):

2.2.10.- Merkataritzako Bilbo Bonua – 1.000.000€. (20 euroko 50.000 bonu) (adibidez: % 20ko deskontu-bonua Bilbon egindako edozein erosketarako, 100 eurora arte).

2.2.11.- Ostalaritza eta Jatetxe-arloko Bilbo Bonua – 1.000.000€. (20 euroko 50.000 bonu) (adibidez: % 20ko deskontu-bonua Bilbon egindako edozein erosketarako, 100 eurora arte).

2.2.12.- Turismoko Bilbo Bonua – 500.000€. (20 euroko 25.000 bonu) (adibidez: % 20ko deskontu-bonua Bilbon egindako edozein erosketarako, 100 eurora arte). Hoteletara eta bestelako produktu eta zerbitzu turistikoetara zuzenduta. Beharrezko akordioetara heltzekotan, aukera egongo da inguruko beste hiri batzuekin “baterako bonuak” sortzeko, “hurbiltasunezko turismo” hau bultzatzeko; izan ere, hori izango da berreskuratu ahal izango den lehendabiziko turismo mota.

2.2.13.- Komunikazio-kanpaina merkataritza eta tokiko kontsumo arduratsua sustatzeko – 150.000€. Bonuen bidezko kontsumoaren pizgarrien neurriekin batera, proposatzen da komunikazio-kanpaina bat egitea Bilboko saltokietan eta negozioetan kontsumoa indartzeko eta sustatzeko.

Kontsumoaren pizgarriekiko neurri osagarri gisa, aztertu egingo da **txandakako aparkaleketan hobariak** eskaintzeko aukera hiriko saltokietan eta ostalaritza-establezimenduetan erosketak egiten dituzten pertsonentzat.

HIRIAREN PROMOZIO TURISTIKORAKO EZ-OHIKO EKINTZAK

Nazioarteko organismoen eta joera turistikoaren analisten arabera, 2020ko ekitaldian, nazioarteko jardura turistikoa eskasa edo oso mugatua izango da. Beraz, lehentasunezkoa da egungo sustapen-tresnak egokitzea, gure lehentasunezko merkatuekin jarduketak alderantzizko optikatik bultzatzeko eta Bilboren posizionamendu digitala indartzeko. Halaber, 2021ean merkatuak aktibatzen zuzendutako sustapena babesteko eta produktua garatzeko jarduketak bultzatuko ditugu.

Kalkulatzen da jarraian azaltzen diren promozio turistikoko neurri guztien aurrekontua 450.000 eurokoa izango dela.

2.2.14.- Sustapen-ekintzak hurbiltasun-merkatuetan

Aurreikusten da pertsonen mugimenduen liberalizazioa geografikoki eskalatuko dela; horrela, hurbiltasunezko merkatuak izango dira berreskuratuko diren aurrenekoak.

Bestalde, norakoaren segurtasun-pertzepzioa handiagoa izango da Bilboko errealitatea hurbilagotik bizi izan duten pertsonentzat eta gure hirira berezko garraio bide batekin edo distantzia laburreko garraio bide batekin etor daitezkeenentzat.

2.2.15.- Alderantzizko sustapen-ekintzak turoperadore eta preskriptoreekin

Nazioarteko promozio turistikoa berriz orientatuko da alderantzizko ekintzen alde apustua egiteko, hau da, norakoan bertan egiten diren ekintzen alde eginez, bitartekaritza edo Bilborako preskripzioa erakarriz.

Epe ertainera duen efektuaz gain, horrelako ekintzetan egindako inbertsioak eragin zuzena dauka tokiko sektore turistikoan eta, aldi berean, lan estuagoa eta kolaboratiboagoa ahalbidetzen du gure enprekin eta horien artean ere bai.

2.2.16.- Sustapen digitala indartzea

Egoera berri honetan, kanpaina digitalak funtsezko tresna bat izango dira kontsumitzaileengana heltzeko eta horien eragiten saiatzeko. Horretarako, 3 ildo hauetan lan egingo dugu:

- Kanpaina digitalaren helburuak bideratuz kontsumitzaileek bidaiaren azkenengo erabaki-etapan egiten dituzten ekintzetarantz: erosketak eta erreserba.
- Gure helburuak partekatzen dituzten bazkide eta kolaboratzaileekiko elkarlana indartzeko: aire-konpainiak eta bidai-agentzia digitalak.
- Babes-ekintzak eta euskarriak mundu digitalaren eta merkatuko nitxoaren promoziora orientatuz, bidaien munduan sartzen diren heinean.

AUZOETAN MERKATARITZA-JARDUERA DINAMIZATZEKO EZ-OHIKO EKINTZAK

2.2.17.- Bilboko tokiko elkarteentzako eta bestelako eragile ekonomiko sektorialentzako laguntza tekniko eta ekonomikoak horiek eusteko, kudeatzeko eta sustatzeko – 350.000€. Bilboko tokiko merkatarien elkarteak ekonomikoki laguntzea, urtero ematen zaien diru-laguntza izenduna % 100 handituz eta eskainitako babes teknikoa indartzeko. Babes tekniko hori Bilbao Ekintzak, Bilbao Dendak eta Bilbao Centro erakundeek osatutako baterako talde batetik koordinatuko da, zehazki, merkataritzako bulego teknikoaren

bidez. Aldi berean, proposatzen da hitzarmen bat sinatzea Bizkaiko Ostalaritza Elkartearekin.

2.2.18.- Ostalaritzaren gaueko ordutegiaren ebazpena aldatzea, alarma-egoeran/konfinamenduan gozatu ez diren egunak berriz hartzea baimenduz.

ENPLEGUAREN SUSTAPENA

Enpleguaren arloan zuzeneko eskumenik ez izan arren, abian jarri behar ditugu enpleguarekin lotutako ekintzak, funtsean, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak enplegu-programa eta kontrataziorako pizgarri gisa bultzatzen dutena osatuz eta aukera horiek Bilboko enpresetara eta pertsonengana hel daitezen ahalbidetuz.

Jarduera hori **COVID-19ak eragindako pertsonentzako Ez-ohiko Enplegu-plan baten pean antolatuko da, neurri hauek hartuko dituen barne:**

2.2.19.- 2020/21 Enplegu-plana, Lanbiderekin elkarlanean – 1.000.000€. Horretan sartuko dira, bai udalaren aldi baterako kontratazio zuzenak, bai enpresen aldi baterako kontrataziorako pizgarriak, azkenengo horiek lehenetsiz. Kalkulatu da Lanbideren finantziarioa 4.600.000 eurokoa izango dela.

2.2.19.- 2020/21 Gazteentzako Enplegu-plana, Lanbiderekin elkarlanean – 1.000.000€. Udalaren zuzeneko aldi baterako kontratazioak. Kalkulatu da Lanbideren finantziarioa 1.300.000 eurokoa izango dela.

2.2.21.- Enplegu-plan berezien sustapena – 250.000 €. Gizarte-erakundearen eskutik eta Lanbiderekin elkarlanean, ekimenak sustatuko dira kontrakzio ekonomikoak gehien eragindako kolektiboen enplegarritasuna areagotzeko.

2.2.22.- Enpleguaren promozioa eta sustapena, Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean - (aurrekontu-xehetasunak ezartzeke daude). Kontratazio zuzenaren sustapena enpresentzako eta erakundeentzako laguntzen eta orientazio eta kualifikazio programen bidez.

Etxebizitzaren arloa

2.3.1.- Bilboko udal etxebizitzetako merkataritza-lokalen alokairu-kuoten salbuespenak eta hobariak – 340.000€. Merkataritza-lokalen alokairu-kuoten ordainketa-salbuespena alarma-egoerak irauten duen bitartean, epe berean alokairu-kontratuak luzatzeaz gain.

Hiri-birgaitzearen arloa

2.4.1.- Etxebizitza birgaitzeko obra txikietarako laguntzen programa berezia - 500.000 €. Obra txikiak egiteko 6.000 eurorainoko zuzeneko laguntzak; udalak zenbateko osoaren % 20 jarriko du obra egin ahal izateko, Surbisaren eremuan.

Tokiko egitura ekonomikoa eta enplegua babestera zuzendutako bestelako neurri globalak

2.5.1.- Udalak eta menpeko erakundeek ETEei eta autonomoi fakturak eta ziurtapenak berehala ordaintzeko muga handitzea. Gaur egun, 1.200 euro baino gutxiagoko fakturak berehala ordaintzen dira. Proposatzen da berehalako ordainketaren egungo muga hori igotzea 3.000 eurora. Funtsean, neurri hau onuragarria izango litzateke hornitzaile txikientzat, horiek baitira krisialdia gehien pairatzen ari direnak.

2.5.2.- Salbuespenak eta murrizketak udal emakiden bidez garatutako eta koronabirusaren pandemiak eragindako jarduera ekonomikoetarako kanonaren ordainketan – 50.000€. Ordainketaren % 100eko 6 hilabeterako salbuespena itxi behar izan duten jarduerentzat eta % 50eko murrizketa egoerak eragin dien baina itxi behar izan ez duten jarduerentzat.

2.5.3.- Salbuespenak eta murrizketak udal merkatuetan garatutako eta alarma-egoeran zehar koronabirusaren pandemiak kaltetutako jarduera ekonomikoetarako kanonaren ordainketan eta mantentze-gastuetan – 100.000 €. Ordainketaren % 100eko salbuespena, 6 hilabetera bitartean, itxi behar izan duten jarduerentzat eta % 50eko murrizketa egoerak eragin dien baina itxi behar izan ez duten jarduerentzat.

2.5.4.- Terrazekin okupatu daitekeen espazio publikoa zabaltzeko irizpideak malgutzea. Deskonfinamendu-faseen irizpide ezagunei jarraiki, aldi baterako eta salbuespen gisa, irizpideak malgutuko dira terrazaren espazioa handitzeko eta, horrela, lokalaren funtzionamendua posible izan dadin, hain zuzen ere, aipatutako deskonfinamendurako eta normaltasunera bueltatzeko neurriak betez, betiere herritarren, oinezkoen eta terrazaren arteko oreka bermatuz.

2.5.5.- Tokiko enpresei kontratazio publikorako sarbidea erraztea – 682.000 €. Besteak beste, hauek bezalako neurrien bidez: kontratazio publikoan gizarte-ekonomia solidarioko enpresei kontratuak erreserbatzea; kontratazio publikoan gizarte-klausulak gehitzean aurrera egitea eta tokiko ETEei zuzendutako lizitazio publikoko prozesuen inguruko berriazko prestakuntza.

2.5.6.- 2020rako Garapenerako Lankidetzarako onetsitako laguntzen ehunekoa mantentzea, aurrekontu-aurreikuspen berria kontuan hartuz.

III.3- KULTURAREN arloko neurriak

3.1.- Kultura Bonua – 500.000€. (20 euroko 25.000 bonu) (adibidez: % 20ko deskontu-bonua Bilbon egindako edozein erosketarako, 100 eurora arte).

3.2.- Kultur eta Sormen Industriekin lotutako jardueren sustapena espazio publikoan - 300.000 € Kultura eta Ekonomiaren Garapena Sailen artean koordinatuta, jarduera zuzenak antolatuko dira eta ekimenak sustatuko dira, horietan Kultura eta Sormen Industrien tokiko sektorea integratuz.

3.3.- Tokiko merkataritza kulturalaren sustapena formatu txikiko barneko jardueren bidez – 100.000€. Aurreko neurria, funtsean, kaleko jarduera kulturaletara eta, oro har, merkataritza-jarduera bultzatzera zuzenduta dago; aitzitik, proposamen honen helburua da establezimendu eta saltoki kulturalen jarduera zuzenean sustatzea. Sustatu egingo da formatu txikiko zenbait promozio-jardueren antolakuntza (errezitaldiak, kontzertu akustikoak, aurkezpenak, hitzaldiak, ipuin-kontalariak, performanceak), hain zuzen ere, liburategietan, arte-galerietan, kontzertu-aretoetan eta bestelako establezimendu kulturaletan, horiei ikusgarritasuna emateko eta kontsumo kulturala pizteko.

3.4.- “Artistak koronabirusaren aurka” Proiektua – 100.000€. Programa hau Bilbao Arteren bidez garatuko da 2021eko urtarrilean makro erakusketa bat antolatzeko; horretan, Bilboko artista bisualek aukera izango dute Covid-19aren eraginaren inguruan duten ikuspegi artistikoa erakusteko. Deialdi publiko baten bidez hautatuko litrateke erakusketarako artistak eta komisarioak eta bakoitzari obra-produkzioko beka bat emango litzaioke.

3.5.- Ikus-entzunezko produkzioaren sektorea babestea hiribilduaren promoziorako ikus-entzunezko funts bat sortuz – 100.000€. Tokiko ikus-entzunezko sektorea babestea hiribilduaren aktibo kultural eta turistikoak nabarmentzera zuzendutako ez-fikziozko produktuen kontratazioaren bidez; horiek, sektorea dinamizatu ez ezik, hiribilduaren promoziorako ikus-entzunezko funts bat ere eskainiko digute, ondare-erakinak, saltokiak, tradizioak eta kultura- zein jaialdi-jarduerak bezalako elementuekin.

3.6.- Proiektu kulturalen poltsa berezia – 200.000€. Egoitza Bilbon duten autonomo zein mikroenpresa kulturaleri zuzendutako proiektuen poltsa baten zuzkidura, 2021eko martxora arte egikaritu beharreko proiektu kulturalen garapena babesteko.

3.7.- Ezohiko laguntza Ekoizpen Eszenikorako Harrobia Berrikuntza Zentroarentzat - 28.000€. Harrobia euskal sektore eszeniko profesionaleko kolektibo profesional guztien eskura dagoen aktibo bat da eta horiei guztiei laguntzen die bere proiektuen garapenean. Laguntza honekin, arte eszenikoen tokiko konpainiek aukera izango dute bere entseguak 2020ko abendura arte edo 2021eko lehenengo hiruhilekora arte kosturik gabe egiteko.

3.8. Kultura Sailaren hiribilduko elkarte kulturalentzako diru-laguntzak mantentzea. Kultura Sailak diru-laguntza izendunak eta deialdi orokorrak hasiera batean aurreikusitako terminoetan mantenduko ditu, gure elkarte kulturalak mantentzea errazteko.

3.9. Tokiko eragile kulturaleri eragiten dieten etendako jarduerak berriz programatzea. Kultura Saila saiatuko da eten diren Bilboko eragile kulturalekin aurreikusitako jarduerak berreskuratzen, bestelako formula batzuk bilatuz (etorkizunean programatzeko konpromisoa, emankizuna online, produkzio berrien enkarguak) ezinezkoa denean horiek berriz programatzea.

3.10. Udal ekipamendu kulturalen konpromisoa tokiko eragile kulturalekin. 2020ko azken hiruhilekorako, agenda kultural erabat bilbotarra eta euskalduna aktibatzea udal ekipamendu eta programa kulturaletan. Arriaga Antzokiak berriz antolatuko ditu bere programazioa eta berezko produkzioen plana, tokiko konpainiak, produkzioak eta artistak ehenesteko. Era berean, Bilbao 700 Fundazioak eta AZek zero kilometroko programazioa lehenetsiko dute. Aztertu egingo da produkzio berriak sortzeko kostuen eta emankizunen *streaming* bidezko igorpenaren kostuen zenbatekoaren ordainketa aurreratzea, baldin eta horien edukiera mugatu behar bada osasun-zuhurtziako arrazoiengatik.

Kulturaren eremuko ekintzek euskal kultur ekoizpenaren hedapenarekin lotutako eragileak hartuko dituzte kontuan, bai jardueren garapenean, bai horien zabalkundean.

IV.- PLANAREN GOBERNANTZA-EREDUA

Gobernantza-eredu bat gehitzea bereziki beharrezkoa da Larrialdi-plan batean, malgutasun-beharraren eta adostasunaren zein lankidetzaren aldeko apustuaren funtsezko ezaugarriekin jaino baita.

Gobernantza-ereduak elementu hauek izango ditu:

1. Alkateak zuzenduko duen **Barne-koordinaziorako Lantalde** bat sortzea, inplikaturako udal sailen parte-hartzearekin.
 - Abian jarriko diren neurri desberdinak zehaztea eta horretarako egutegia finkatzea.
 - Horien eraginaren ebaluazio parte-hartzailea.
 - Ezarri beharreko neurri berrien analisisa eta proposamena.
2. Itunaren **Jarraipen Batzorde** bat sortzea talde politiko guztiekin, hartutako neurrien jarraipena egiteko, horien berri emateko, ebaluatzeke eta kasua bada, neurriok egokitzeko.

ERANSKINA: 2020RAKO NEURRIETARAKO KALKULATU DEN AURREKONTUA

GIZARTE-KOHESIOAREN eremuko neurriak

Neurria	Udal aurrekontua (€)
Aldizkakoak ez diren Udalaren Laguntza Berezien ez-ohiko programa	625.000 €
Arrakala digitala murriztea	100.000 €
Urrats bat gehiago	150.000 €
Erkidego-etxebizitza	560.000 €
Gizarte-bazterketa	375.000 €
Familia eta haurrak	410.000 €
GIZARTE-KOHESIOA guztira	2.220.000 €

Udalaren berezko aurrekontuaz gain, kalkulatzen da, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuarekin, Gizarte-larrialdiko Laguntzetarako 3.460.000 € egongo direla eskuragarri eta beste 1.000.000 € lortuko direla gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonei arreta emateko erakunde arteko funts batetik

EKONOMIAREN ETA ENPLEGUAREN eremuko neurriak

Neurria	Udal aurrekontua (€)
Enpresentzako zerga-pizgarriak- Ez-ohiko murrizketak eta hobariak zerga eta tasetan	3.000.000 € <i>(diru-sarrera gutxiago)</i>
Saltokien, mikro ETEen, autonomoen eta ekintzaileen susperraldirako eta lehiakortasuna hobetzeko ez-ohiko ekintzak	1.080.000 €
Bilbon zuzenean kontsumitzeko pizgarriak (Bilbo Bonuak) (berezko aurrekontua)	2.650.000 €
Hiriaren promozio turistikorako ez-ohiko ekintzak	450.000 €
Auzoetan merkataritza-jarduera dinamizatzeko ez-ohiko ekintzak	350.000 €
2020/21 Enplegu-planak (udal aurrekontua)	1.000.000 €
2020/21 Gazteentzako Enplegu-planak (udal aurrekontua)	1.000.000 €
Enplegu-plan bereziak	250.000 €
Bilboko udal etxebizitzetako merkataritza-lokalen alokairu-kuoten salbuespenak eta hobariak	340.000 € <i>(diru-sarrera gutxiago)</i>
Etxebizitza birgaitzeko obra txikietarako laguntzen programa berezia	500.000 €
Salbuespenak eta murrizketak udal emakiden bidez garatutako jarduera ekonomikoetarako kanonaren ordainketan	50.000 € <i>(diru-sarrera gutxiago)</i>
Salbuespenak eta murrizketak udal merkatuetan garatutako jarduera ekonomikoetarako kanonaren ordainketan eta mantentze-gastuetan	100.000 € <i>(diru-sarrera gutxiago)</i>
Tokiko enpresei kontratazio publikorako sarbidea erraztea	682.000 €
EKONOMIA ETA ENPLEGUA guztira	11.452.000 €

Udalaren berezko aurrekontuaz gain, kalkulatzen da Lanbidek 5.900.000 euroko finantziazioa emango duela Enplegu-planetarako (4.600.000 € Enplegu-planerako eta 1.300.000 Gazteentzako Enplegu-planerako).

KULTURAREN eremuko neurriak

Neurria	Udal aurrekontua (€)
Kultura Bona	500.000 €
Kultura eta Sormen Industriekin lotutako jardueren sustapena espazio publikoan	300.000 €
Tokiko merkataritza kulturalaren sustapena formatu txikiko barneko jardueren bidez	100.000 €
“Artistak koronabirusaren aurka” proiektua	100.000 €
Ikus-entzunezko produkzioaren sektorea babestea hiribilduaren promoziorako ikus-entzunezko funts bat sortuz	100.000 €
Proiektu kulturalen poltsa berezia	200.000 €
Ekoizpen Eszenikorako Harrobia Berrikuntza Zentroarentzako ez-ohiko babesa	28.000 €
KULTURA guztira	1.328.000 €

LARRIALDI-PLANAREN AURREKONTUA GUZTIRA (berezko finantziazioa)	15.000.000 €
---	---------------------